

## Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkum izango dira San Telmoren Museo Bikoitza programan arituko diren hurrengo artistak

*Jose Mari Zabalak Jaio eta van Gorkum bikote artistikoa aukeratu du Museo Bikoitza programan bere ondoren lan egin dezan*

San Telmo Museoa iragarri du Museo Bikoitza esku-hartze programaren hurrengo artista gonbidatuak Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkum izango direla, Jose Mari Zabalak hala hautatuta.

Museo Bikoitza programaren ezaugarrietako bat da edizio bateko artistak hurrengo edizioko gonbidatzen duela proiektuan parte hartzera. Hala, Zabalak 2001. urteaz geroztik bikote artistikoa osatzen duten Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkum hautatu ditu eta hurrengo urtebetean beraien arituko dira Museo Bikoitza proiektuan lanean.

Honela azaltzen du Jose Mari Zabalak bere aukeraketa:

“Iratxe eta Klaas duela 20 urtetik hona garatzen ari diren lanean nabarmendu nahi dudan alderdia zera da: behin eta berriz memoriaren espaziorik emankorrenean kokatzen dituzte, erraztasunez antza, ondo freskoak eta agian lehenengoz irakuzketarik eta bernizik gabe, eszenatik oharkabean desagertutako “obrak”, desagertu hori sarritan naturala iruditzen delarik.

Pentsa liteke, besterik gabe, “obra” horien unea igaro zela eta ez zutela jada zentzurik, ez bada, Iratxe eta Klaasek azkenean erakutsi ohi duten bezala, ahanztura deliberatuen eta desagertu oso egokien, agian adostuen, biktima izan direla: itxura errugabeko lapsusak, ezkutatzeko batzuen inozentzia eza agerian uztera etorriko zirenak.

Planotik kanpo hain modu diskretuan uzten saiatu diren horrek -garai batean, bere inguruan taupaka ari zen orori erreduzko erreferentzia eta orientazio-borondate gisa inposatu nahi izan ondoren- orain, agian inoiz baino gehiago, izan ditzake ahanzturatik edo itxurazko deskuidutik errekuperatzeko eta agerian uzteko gauza gehiago.

Kondaira herrikoi batek dioenez, artzain batek txirula bat aurkitzen du, eta hori jotzerakoan, oso modu melodiatsuan hilketa bat errebelatzen du; izan ere, txirula hori biktimaren hezur batekin egina dago.

Elezaharra Iratxe eta Klaasen kasuari aplikatzen zaio, proposatzen dituzten emaitzak ez baitira autopsia edo hatz salatzaileen kontua izaten, bizitzaz eta zentzuz betetako konposizio pletorikoak baizik: kasu batean baino gehiagotan, jatorrizko erreferentzek inoiz izan ez zituzten bizitasun eta erresonantziak dituzte, sortzeko unean eta borondatean ere izan ez zituztenak.

Elkarrekin lan egiteak, “estetika erlazionalak” izan zirenen ondorio zuzen edo ez hain zuzena, nolabait azaltzen du aukeratzeko dituzten gaien berezitasuna, eta gai horiek, aldi berean, kasu

bakoitzean tratamendu egokia zehaztera eramango dituzte, estiloari eta jarraitutasunari buruzko bestelako begiramenik gabe:

*Proiektu bakoitzean, berriz definitzen dugu nola lan egiten dugun. (...) Gainera, proiektu bakoitza prozesu pertsonal bat izan da, eta taldean lan egiteko formulak ikasi ditugu. Izan ere, beti ulertu izan dugu bi garen bezala jende gehiago izan gintezkeela. Hala ere, ikasi dugu esperientziak baduela garrantzia. Zalantzarik gabe, errazagoa zaigu orain elkarrekin lan egitea, egin genuen lehen aldian baino.*

Laburbilduz, haien ekoizpenaren berezitasun baliotsua errutinetan egindako desmarkatze eta birdoitze batzuen emaitza dela esan daiteke. Errutina horiek ezagunak eta mugiezinak direla uste izaten den arren, Iratxek eta Klaasek berriz aztertzeak batuketa biderkatzea eragiten du.

Zuen ekarpena zuen kontu esanguratsuan beste lorpen bat izan dadin nahi dugunez, ohore handia da niretzat San Telmo Museoko Museo Bikoitzera ongietorria ematea.”

Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkum izango dira, beraz, Museo Bikoitza proiektuan Jose Mari Zabalaren erreleboa hartuko dutenak. Hemen beren biografiaren ohar labur batzuk:

Iratxe Jaiok (Markina-Xemein, 1976) eta Klaas van Gorkumek (Delft, Holanda 1975) bikote artistikoa osatzen dute 2001etik. Gaur egun Rotterdamen (Holanda) bizi dira. Euskal Herriko hainbat proiektutan lan egin dute, eta testuinguru hori sakonki ezagutzen dute.

Bere praktika arkeologia esperimentalarekin alderatu daiteke. Existitzen diren objektu eta dokumentuen esanahi soziala aztertzen dute, horiek bereganatuz eta beste testuinguru batean erreproduzitzen. Hainbat lanetan, ondare deserosoan jarri dute arreta, hala nola Iruña-Veleiako aztarnategi arkeologikoko inskripzio polemikoetan, edo hiru soldadu alemaniarri eskainitako Gerra Zibileko monumentu abandonatu batean. Horrela, artearen esparrutik, mugiezinak diruditen gaiei buruzko irakurketa alternatiboak dituzten 'su-eten espazioak' izenekoak irekitzen dituzte.

Beren diziplinatik haratago doan interes batekin, arkeologia, soziologia edo aktibismoaren alorretako pertsonekin elkarlanean aritu dira. Artearen eta gizartearen arteko harremana aztertzen eta birdefinitzen dute, arteak interes sozialeko hainbat gaitan izan dezakeen papera ez ezik, horiek artearen esanahian eta balioan duten eragina ere balioetsiz.

Erakusketa indibidual eta kolektibo ugaritan parte hartu dute, besteak beste, Gasteizko Artium Museoa; Bartzelonan, DNA Platform; Bordelen, FRAC-Akitania; Leonen, MUSAC; Donostian, Tabakalera; Vienan, Kunsthalle Exnergasse; Bartzelonan, Fabra i Coats; Amsterdamen, De Appel; eta Stockholmen, Konsthall C.

Era berean, San Telmo museoarekin ere harremana izan dute, *Suturak* (2014) eta 1966 | GAUR KONSTELAZIOAK | 2016 (2016) erakusketetan parte hartuz.

## Museo Bikoitza programa

2018an jarri zuen martxan San Telmo Museoa Museo Bikoitza programa, Asier Mendizabalen ideia batetik abiatuta. Aldizkako esku-hartzeen programa bat da urtero gonbidatutako artista batek egiten duena, eta museoarekin lotuta lan egiten du artista horrek proiektu berri baten produkzioan. Lan horren emaitza denbora batez egoten da erakusketa programaren barruan, eta azkenik museoaren arte bildumari gehitzen zaio, egungo une bakoitza San Telmoko bildumaren ondarrera eta kontakizunera gehitzeko premia adieraziz, premia hori ordeztu gabe, betiere.

Programa honen metodologiaren arabera, artista bakoitzak, gutxi gorabehera 6 hilabete ditu ikerketarako eta proposamena aurkezteko, eta beste horrenbeste proiektua gauzatzeko. Amaitutako proiektua museoan instalatzen da, egungo ibilbide museografikoaren barruan edo adostutako gune batean, eta proiektua jendaurrean erakusten den urtean, hurrengo edizioako artista hautatu eta lan koordinazioaren konpromisoak bere gain hartzen ditu gonbidatutako pertsonak. Proiektuaren erakustaldi publikoa amaitutakoan, museoaren bilduman txertatzen da produzitutako obra.

Asier Mendizabalek, proiektuaren ideiarekin sortzaileak gonbidatu zuen lehen artista, Ibon Aranberri. Aranberrik lekukoa Erlea Maneros Zabalari eman zion eta honek Jose Mari Zabalari eman zion lekukoa. Zabalaren bideolana uztailaren 1az geroztik ikusgai dago industrializazioari eskainitako atalean. Gaur aurkeztu bezala, Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkum jarriko dira hemendik aurrera lanean Museo Bikoitza programan.

## Iratxe Jaio y Klaas van Gorkum participarán en la próxima edición de Museo Bikoitza del Museo San Telmo

*Jose Mari Zabala ha escogido a la pareja artística formada por Iratxe Jaio y Klaas van Gorkum para que tomen su relevo en Museo Bikoitza*

San Telmo Museoa ha anunciado que Iratxe Jaio y Klaas van Gorkum serán los artistas que realizarán una intervención en el museo en el marco de la nueva edición de Museo Bikoitza.

Una de las características principales del programa Museo Bikoitza es que la persona invitada a participar en una edición es propuesta por el o la artista de la anterior edición. Así, Jose Mari Zabala ha elegido a Jaio y van Gorkum, que serán los artistas que cogerán el relevo.

Así explica Zabala su elección:

“El aspecto que quiero destacar en la obra que Iratxe y Klaas vienen desarrollando desde hace 20 años es la aparente desenvoltura con que una y otra vez sitúan en el espacio más fértil de la memoria, bien frescas, coleando libres de enjuagues y barnices acaso por primera vez, «obras» cuya desaparición de escena pasó desapercibida, pudiendo parecer con frecuencia natural.

Podría simplemente pensarse que el momento de estas «obras» había pasado y que ya no tenían sentido, de no ser que, como Iratxe y Klaas suelen acabar mostrando, en realidad han podido ser víctimas de olvidos deliberados y desapariciones muy oportunas, acaso consensuadas: lapsus de apariencia inocente que vendrían a revelar la nada inocente naturaleza de algunos ocultamientos.

Lo que de manera tan discreta se ha procurado escamotear del plano, después de, en otros tiempos, haberse pretendido imponer como referente ejemplar y voluntad orientadora para todo lo que latía en sus cercanías, resulta que ahora bien podría tener, tal vez más que nunca, muchas más cosas que revelar y rescatar del olvido, del descuido aparente en que se lo pretendiera confinar.

Una leyenda popular cuenta que un pastor encuentra una flauta que, al ser tocada, con un son muy melódico revela un crimen, pues no en vano está hecho con un hueso de la propia víctima.

La leyenda se aplica al caso de Iratxe y Klaas porque los resultados que proponen no suelen ser cosa de autopsias ni dedos acusadores, sino composiciones pletóricas de vida y sentido: en más de un caso, de una vitalidad y unas resonancias que nunca antes tuvieron los referentes originarios, ni siquiera con ocasión del momento y voluntad de su creación.

El hecho de que trabajen de forma conjunta, consecuencia más o menos directa de las que fueron «estéticas relacionales», explica en cierto modo la particularidad de los temas que eligen, que a su

vez les van a llevar a determinar el tratamiento idóneo en cada caso, sin otros miramientos de estilo y continuidad:

*En cada proyecto redefinimos la manera en que trabajamos. (...) Además, cada proyecto ha sido un proceso personal en el que hemos ido aprendiendo formulas para trabajar en grupo. De hecho, siempre hemos entendido que lo mismo que somos dos podríamos ser más gente. Aunque también hemos aprendido que la experiencia cuenta. Sin duda, nos resulta más fácil trabajar juntos ahora que la primera vez que lo hicimos.*

En fin, cabría resumir diciendo que la valiosa singularidad de su producción viene a ser el resultado de una serie de desmarques y reajustes en rutinas que se suelen dar por consabidos e inamovibles, cuya reconsideración por parte de Iratxe y Klaas hace que la suma sea en realidad una multiplicación.

Deseando que vuestra aportación sea un nuevo logro en vuestra significativa cuenta, es un honor para mí daros la bienvenida al Museo Bikoitza del San Telmo Museoa”.

Iratxe Jaio y Klaas van Gorkum es, por tanto, la pareja artística que tomará el relevo de Jose Mari Zabala, y recogemos a continuación una breve nota biográfica:

Iratxe Jaio (Markina-Xemein, 1976) y Klaas van Gorkum (Delft, Holanda 1975) forman pareja artística desde el 2001. Actualmente viven en Rotterdam (Holanda). Han trabajado en varios proyectos en el País Vasco, contexto que conocen a fondo.

Su práctica podría compararse con la arqueología experimental. Exploran el significado social de los objetos y documentos existentes, mediante su apropiación y reproducción en un contexto diferente. En varios de sus trabajos han puesto el foco en patrimonio incómodo como, por ejemplo, las polémicas inscripciones del yacimiento arqueológico de Iruña-Veleia, o un monumento abandonado de la Guerra Civil dedicado a tres soldados alemanes. Así, desde el ámbito del arte, abren lo que podría denominarse como ‘espacios de tregua’ con lecturas alternativas sobre temas que parecen inamovibles.

Con un interés que va más allá del horizonte de su propia disciplina, han colaborado con personas de otros ámbitos como la arqueología, la sociología o el activismo. Exploran y redefinen la relación entre el arte y la sociedad, valorando no sólo el papel que el arte puede representar en diferentes asuntos de interés social, sino también la influencia que estos tienen en el significado y el valor del arte en sí.

Han participado en numerosas exposiciones individuales y colectivas en espacios como el Museo Artium de Vitoria-Gasteiz; ADN Platform en Barcelona; FRAC-Aquitania en Burdeos; MUSAC en León; Tabakalera en Donostia-San Sebastián; Kunsthalle Exnergasse en Viena; Fabra i Coats en Barcelona; De Appel en Amsterdam; o Konsthall C en Estocolmo.

Asimismo, también han tenido relación con el Museo San Telmo, habiendo participado en la exposición ‘Suturak’ (2014) y ‘1966 | Gaur Konstelazioak | 2016’ (2016).

## Museo Bikoitza

El Museo San Telmo inició el programa Museo Bikoitza en 2018 a partir de una idea de Asier Mendizabal. Es un programa de intervenciones periódicas en el museo que realiza anualmente un/una artista invitado/a, quien trabaja en conexión con el museo en la producción de un proyecto inédito. El resultado de ese trabajo forma parte del programa expositivo durante un tiempo para finalmente añadirse a la colección de arte del museo, señalando, aunque no supliendo, la necesidad de incorporar cada momento presente al patrimonio y al relato de la colección de San Telmo.

La metodología del proyecto plantea que cada artista contará con seis meses aproximadamente para la investigación y presentación del proyecto, y otro tanto para ejecutarlo. Al finalizarlo, la obra resultante se instalará en el museo, dentro del recorrido museográfico existente o bien en un espacio acordado, y durante el año en que permanezca expuesto, la persona invitada pasará a asumir los compromisos de la coordinación de la edición siguiente. Una vez finalizada la exhibición pública del proyecto, la obra producida se incorporará a la colección del museo.

El propio Asier Mendizabal fue el que invitó al primer artista, Ibon Aranberri. Erlea Maneros Zabala fue la artista que continuó con el proyecto y su sucesor ha sido Jose Mari Zabala, cuyo trabajo videográfico se puede ver actualmente en la sección dedicada a la industrialización. Tal como presentamos hoy, Iratxe Jaio y Klaas van Gorkum comienzan ahora a trabajar para la siguiente edición de Museo Bikoitza.